

ezagutzen al duzu Donostia?

Aurrin

San Marko mendiko iparraldean, bere magalean kokaturik bi baserri-etxe polit aurkitzen dira: *Aurrin-goia* eta *Aurrin-behea* (eta nahiago baduzue *Abrin-goia* eta *Abrin-bia*), Altza herri zaharreko ekialdean daude. Esan dezakegu gainera *Aurrin-goia* dugula Donostiako udal-dermioko ekialdeen aurkitzen den etxea. *Aurrin-goia* ez da osorik donostiar-etxea, zeren Orereta edo Errenteria herriarekin erdibana zatitzen baita. ez gara harritu behar, Euskal Herrian hainbat etxe aurkitzen baita bi udal-herrien artean zatitua. Kasu guzti hauetan, ohitura eta legea denez, Oreretari dagokio *Aurrin-goia*, etxeko sukaldea udal-dermiu horren barnean aurkitzen baita, eta ikuilua berriz Donostian. Baina behiek ez dute animarik, ezta bazkatzeko esku-biderik ere!

Beraz, *Aurrin-goia*ko pertsonak Oreretarrak dira; behiak, aldiz, donostiarak! Badu *Abrin-goia* beste berezitasun bat: Kanpoko harmailetatik igo eta etxe-bizitzako sarrera zaintzen duen harrizko gurutze harrigarria, horman sartua dagoena. Gurutze honek Kristo polit bat dauka. Gainera, badirudi bere sexua ageri duela, alajaina!

Abrin-bia edo *Aurrin-azpi* baserria *Abrin-goia*tik metro gutxitara kokatzen da eta Oreretari dagokio osorik, udal-dermioko mugatik oso hurbil egon arren. Gure Txirrita handiak oso ongi ezagutzen zituen bi baserri hauek, izengoitizat hartu zuen izeneko etxea inguru horietan baitugu. *Txirrita Aurrinetatik* oso hurbil dago, ekialdera. Bertan gure Joxe Manuel Lujambio luzaro bizi izan zen. Beranduago *Gazteluene* baserrian bizi eta bertan hil zen.



Antonio Zabalak bere «Txirritaren bertsoak» liburuan azaltzen digu Joxe Manuel oraindik *Txirrita* baserrian bizi zelarik. Errenterian bera hil zeneko susmoa zabaldu zela eta, susmo hau *Aurrin-Azpi*ko etxeoandreak zabaldu omen zuela. Berri hori zela eta, haserretuta, honela idatzi zituen Txirritak bertso hauek:

NI HIL NAIZELA SORTU OMEN DU
AURRIÑ-AZPIKO ATSUAK,
PENEA GALANTA ARTUKO ZUTEN
SIÑARE TA GURASUAK.
AI ZER NEGARRA NERE KOÑATA
ETA ILLOBA GAXUAK!
BIZI NAIZELA JAKIÑ DEZATEN
JARTZERA NUA BERTSUAK.

IZEBA ZAR BAT BADA PANPLONA'N
GURE ETXIAN AZIYA.
ARTXEK EMANDA ARTUA NAIZ NI
BATAUAREN GRAZIYA;
ARGANA ERE ALLEGATU DA
HIL NAIZELA NOTIZIYA,
KOITARA URA AN OMEN DABILI
GUZIYA LUTOZ JANTZIYA.

PANPLONA'N DEDAN IZEBEA XARRA
ZENBATXU MAITE DEDAN NIK
EZ DERIZKIYOT IÑORTXOK ERE
JUZGATUKO LUKIANIK;
KOITARA AREK ABIXUTXO BAT
ARTU BIAR DU NIGANDIK;
LUTO ORIEK ERANTZITZEKO,
BIZI NAIZELA ORAINDIK.

ZERUBAN DAUDEN SANTU TA SANTAK
DAUDE TRISTE TA SERIYO.
GURE AUZUAN BIZI DAN ATSO
SORGIN BAT DELA MERIYO;
BALDIN JAINKUAK SALBAZIYORIK
ORRI EMATEN BADIYO,
UMILDADE TA ERREZATZIAK
ASKORIK EZTU BALIYO.

Dena dela, Antonio Zabalak dio *Aurrin-Azpi*ko sendi hura desegin zela, eta haietatik inor ez dela bizi. Beste famili herri bat bizi da orain baserri horretan. Gaur egun, ez dago, beraz, inor ofenditzeko arriskurik.

JOSU TELLABIDE

ARGAZKIAK: ROXALI FERNANDEZ